

## 6. eredia

### BITARTEKARITZA PROGRAMA EZARTZEA

1. Ikastetxean bitartekaritza programa bat ezarri aurretik, programa honek hezkuntza komunitateak sakon ezagutua eta adostasun handiz onartua behar du izan.

2. Bitartekaritza programak, ezarri nahi diren ikastetxeetan, ondoko eduki eta faseak izanen ditu :

- a) Koordinazio- eta/edo bitartekaritza-taldea eratzea. Bizikidetza batzordean koordinazio taldea eratuko da eta, nahi izanez gero, berariazko prestakuntza duten hezkuntza elkarteko kideak sartuko dira. Bizikidetzaren arduradunak bitartekaritza programaren ardura ere izanen du.
- b) Baliabide eta beharkizunen definizioa: Taldeko jardueren deskribapena, beharrezko prestakuntzaren planifikazioa eta baliabide materialen, giza baliabideen eta laneko denbora eta espazioena zehaztapena.
- c) Programaren oinarritzko diseinua:
  - Landu beharreko ereduaren eta gatazka-moten definizioa.
  - Hartzaille taldeak eta bitartekaritza moduak.
  - Inplementazio-aldiak idaztea.
  - Tutoretzaren bilerak eta jarduerak.
  - Dokumentazioa sortzea. informazio-orriak, erregistroak, kartelak eta laguntzarako bestelako materialak.
  - Kasuak deribatzekeo tresna, ordutegi espazioak eta bitartekaritza gela.
  - Zuzendaritzakoei eta irakasleei komunikazioa helarazteko sistemak.
  - Bitartekariei laguntzeko ekintzak, errekonozimenduak eta bestelako jarduerak.
- d) Programa bizikidetza planean txertatzea. Programa koordinazio taldean adostu eta klaustroko, guraso elkarteko eta eskola kontseiluko kideei aurkeztu ondoren, ikastetxeko bizikidetza planean sartuko da.
- e) Sentsibilizazioa eta hedapena.
- f) Prestakuntza jarduerak. Bitartekariak hautatu eta prestatzea.
- g) Programa abiatzea. Bitartekotza aurrekoak, bitartekotzak eta haien jarraipena.
- h) Programaren ebaluazioa: Atazak eta bilerak koordinatzea, prestakuntza eguneratzea, jarduerak berrikusi eta baloratzea, hobekuntza proposamenak eta txostenak.